

## PROGRAMA ESTRATEGIA 2026

### DONOSTIAKO ENPRESA PROIEKTU BERRITZAILEEN HAZKUNDEA BULTZATZEKO DIRULAGUNTZA PROGRAMA

#### ATARIKOA

Donostiako Sustapen Sozietateak, Donostiako berrikuntza agentzia den aldetik, 2025ean sendotu egin du hiriaren berrikuntza erreferente bihurtzeko apustua, eta lankidetzaren publiko-privatua, zerbitzuen pertsonalizazioan eta ezagutzan intentsiboak diren sektoreetan oinarritutako eredu izateko apustua.

Horrek esan nahi du pertsona, enpresa eta proiektu berritzaileei laguntzeko apustua egiten dela, zerbitzuen pertsonalizaziotik eta kalitatekin abiatuta, eta foku estrategiko argi batekin, hiriko berrikuntza ekosistema osatzen duten eragile publiko eta pribatuekin lankidetzan arituz, berrikuntza publikoa eta ekintzaitza berritzailea indartzeko, eta hiria hub berritzaile gisa proiektatzeko.

Testuinguru horretan, berrikuntza bultzatzea eta hiriko enpresa-proiektu berritzaileak haztea da Donostiako Sustapena hiriaren garapenerako oinarri gisa garatzeko lehentasunetako bat.

Gaur egun, 15.400 enpresa baino gehiagoko enpresa-parkea du hiriak, hau da, 81 enpresa/1.000 biztanleko. Horrela, Donostia da Espainian enpresa dentsitate handiena duen laugarren hiria,artzelona, Madril eta Valentziaren atzetik, eta beste hiriburu handi batzuen aurretik, hala nola Malaga, Sevilla edo Bilboren aurretik.

Donostiako enpresa parkearen bilakaerari erreparatuz gero, nabarmentzekoa da Ezagutzako Zerbitzu Intentsiboak (SEIC) hiriaren motor ekonomiko gisa finkatu direla. Sektore horrek 6.300 establezimendu baino gehiago zituen 2024an, eta udal BPGari % 48 egiten zion ekarpena. SEICen gero eta garrantzi handiagoak, beste faktore batzuekin batera, erraztu du Donostiako AENak (Jarduera Ekintzailearen Tasa) hazkunde jarraitua izatea 2018tik, eta 2024an azken historiako mailarik altuena lortzea, % 7,9.

Aldi berean, hiriak enpresa txikiak nagusi diren enpresa-sarea izaten jarraitzen du; izan ere, ehunaren % 71,9 1-2 langileko enpresak dira, eta % 91,3k 1-9 langile dituzte.

Erronka horiei erantzuteko, besteak beste, 2025ean Donostiako Sustapenak berrikuntzaren eta ekintzaitzaren aldeko apustu strategikoa indartu zuen, 6 milioi euroko zuzkidurarekin. Hala, 972 pertsonak ( % 51,4 emakumeak eta % 45 35 urtetik beherakoak) parte hartu dute ekintzaileei laguntzeko zerbitzuetan 2025ean. Babestutako 224 proiektu ekintzaile berrietatik, gutxi gorabehera erdiak oso berritzaileak dira ( % 51), eta Donostiako Sustapenak ezagutzan eta biozientzietan intentsiboak diren zerbitzuen sektoreetarantz duen estrategia islatzen du.



2026an, Donostiako Sustapenak hirian enpresa proiektu berriak sortzen laguntzearen alde egiten jarraitzen du, hazkunde ekonomikoaren eta tokiko enplegua sortzeko motor gisa. Hori dela eta, Donostia Sustapenak hainbat programa eta neurri antolatu ditu, bai enpresa berritzaileen sarea bultzatu eta sendotzeko, baita enpresa proiektu berritzaile berriak garatzeko ere; hori guztia, hiriaren hazkunde lehiakorra bere I+G ekosistemaren bidez bultzatzeko asmoz.

Testuinguru horretan planteatzen dira laguntza hauek, berrikuntzaren eta talentuaren garapenaren aldeko apustua oinarri hartuta, Donostiako enpresa berritzaileek –beren produktu, zerbitzu edo prozesuetan ikerkuntza jardueratik edo merkatuaren ezagutzatik lortutako jakintza txertatzen eta negozio estrategia teknologiaren garapenean eta erabilera intentsiboan oinarritzen dutenek– sustatutako enpresa proiektuen hazkunderako.

## XEDAPEN OROKORRAK

### 1. ARTIKULUA. HELBURUA

Dirulaguntza horien helburua balio erantsi handia eta hazteko ahala duten enpresa txiki eta ertainen (ETE) eta *startup* berritzaileen hazkunderari eta eskalagarritasunari laguntzea da, lehiakortasuna garatzeko eta produktibitatea areagotzeko aurrerapausoa egitea ahalbidetuko dieten proiektu eta ekintza estrategikoen bidez.

Beraz, proiektu berritzaileak izan beharko dira, beren hazkunderan eragina duten lan ildoetara jarraitzen dietenak, enpresen produktibitatea (jarduera terminoetan) areagotuz eta kualifikazio handiko enplegua sortuz.

Dirulaguntza horiek, berrikuntzaren eta talentuaren garapenaren aldeko apustua oinarri dutenek, Donostiako enpresa berritzaileek –beren produktu, zerbitzu edo prozesuetan ikerkuntza jardueratik edo merkatuaren ezagutzatik lortutako jakintza txertatzen eta negozio estrategia teknologiararen garapenean eta erabilera intentsiboan oinarritzen dutenek– sustatutako enpresa proiektuen hazkunderan jartzen dute arreta.

Oinarri hauen ondorioetarako soilik, laguntza edo dirulaguntza izena hartuko du Donostia Sustapenak Oinarri hauen babesean kontraprestaziorik gabe emandako diru kopuruak, baina horrek ez du esan nahi dirulaguntzen araudi orokorrari lotuta daudenik, oinarri hauetan berariaz aurreikusitako baldintzez harago.

### 2. ARTIKULUA. BALIABIDE EKONOMIKOAK

Donostia Sustapenak HIRUREHUN MILA euro (300.000 €) bideratuko du Estrategia dirulaguntzetarako. Donostia Sustapenak hala erabakiz gero, kopuru hau alda daiteke.

### 3. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNAK

Pertsona onuraduntzat joko da dirulaguntza jaso zuen jarduera egin behar duena edo dirulaguntza ematea legitimatzen duen egoeran dagoena, baldin eta betetzen baditu Oinarri hauetan jasotako baldintzak, batez ere, laguntza mota bakoitzari dagozkionak.

Dirulaguntzen onuradunak honako hauek izan daitezke: pertsona fisiko edo juridikoak, publiko zein pribatuak, estatukoak edo atzerrikoak, baita aurrekoen izaerarik ez duten elkarrekin ere, behar bezala –ordenamendu juridikoarekin bat– eratuta badaude eta Oinarri hauetan finkatutako baldintzak betetzen badituzte. Kanpo geratzen dira ondare sozietateak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Sozietateen gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 14. artikuluan zehaztutakoak.

Oinarri hauetan, dagozkion laguntzak eskatzeko bete behar diren baldintzak eta haiek egiaztatzeko moduak zehaztuko dira; izan ere, kasu guztietan Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan aurreikusitakoa bete beharko da. Ondorio horietarako, aipatu legea aplikatu behar dela esanbidez adierazten da.

Laguntza ezin izango zaie pertsona fisiko edo juridikoei eman honako kasu hauetan:

- Indarrean dauden xedapenek ezarritako zerga betebeharrak eta/edo Gizarte Segurantzarekikoak betetzen ez badituzte.
- Ebazpen irmo baten bidez dirulaguntza eta/edo laguntza publikoak jaso ahal izateko aukera galtzea dakarren zigorra ezarri bazaie, edota horretarako ezgaitzen duen lege debekua badute, sexuan oinarritutako diskriminazioagatik ezarritakoak barne, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuaren 23.2 artikuluan xedatutakoaren arabera; halaber, ezingo dira onuradun izan dagokion zehapenean ezarritako aldiari sexuagatiko bereizkeriagatik edo emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko araudia ez betetzeagatik administrazioko edo zigor arloko zehapena jaso duten pertsona fisikoak edo onuradunak. Halaber, ezingo dute laguntza eta dirulaguntzarik jaso estatu araudiaren arabera berdintasun plan bat indarrean izan behar duten arren halakorik ez duten enpresek, baita 50 langiletik gora dituzten eta, estatu legeriak emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan finkatzen duen bezala, sexu jazarpenera, sexuan oinarritutako jazarpenera eta sexu indarkeriak prebenitzeko edo haien aurka egiteko neurriak ezarri dituztela egiaztatzen ez duten enpresek ere.
- Donostiako Udalarekin eta/edo Donostia Sustapenarekin zorrak badituzte.
- Lehenago eman zaizkien dirulaguntzak edo horien zati bat oraindik itzuli ez badute, dagokion zenbatekoa itzuli dela egiaztatzen ez den bitartean.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 28.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, interesdunek badute eskubidea administrazio jardulearen eskuetan dauden dokumentuak edo beste administrazioen batek egindako agiriak ez aurkezteko. Gainera, administrazio jarduleak agiri horiek kontsultatu edo eskatu ahal izango ditu, interesdunak ez badu desadostasuna adierazi; horrelakoetan, agiriak aurkeztu beharko ditu.

Donostia Sustapenak, Donostiako Udalaren jabetzakoa den elkarreragingarritasun aplikazioaren bidez, zuzenean kontsultatuko du Administrazio Publiko eskudunetan ondoko informazioa, prozedura hau ebatzeko eta ordainketak egiteko:

- Udalarekiko eta Donostia Sustapenarekiko zorrak ordainduta daudela egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Foru Ogasunaren zorretan ez egotea egiaztatzen duten ziurtagiriak.
- Ekonomia jardueren gaineko zergaren historia.
- Gizarte Segurantzarekiko zorrak ez izatea egiaztatzen duten ziurtagiriak.

Dirulaguntza eskatzeko orduan eta ordainketak egiterakoan Udal Zerga Bilketarekin, Foru Ogasunarekin eta/edo Gizarte Segurantzaren zorrak dituzten onuradunek jakinarazpena jaso

eta hurrengo HAMAR (10) egun balioduneko epean egiaztatu beharko dute ordainketa horiek egunean dituztela.

#### 4. ARTIKULUA. ONURADUNEK DEIALDI HONETAN PARTE HARTZEKO BETE BEHAR DITUZTEN BALDINTZAK

Onuradunek deialdian parte hartzeko bete behar dituzten baldintzak honako hauek dira:

- a) Irabazpidezko jarduera ekonomiko bat duten pertsona fisikoa, hau da, pertsona juridikoa izatea, edota aurreko nortasunik ez duten baina ordenamendu juridikoan onargarria den moduan eratu diren elkarteak izatea.

Pertsona juridikoen kasuan eta nortasun juridikorik edo fisikorik gabeko elkartearen kasuan, gainera, honako baldintza hauek bete beharko dira:

Pertsona juridikoak badira, eskaera egiten den unean enpresa txikiaren baldintza betetzea. Enpresa txikitzat hartuko da horretarako baldintzak betetzen dituen, Gipuzkoako Lurralde Historikoko sozietateen gaineko zergari buruzko urtarrilaren 17ko 2/2014 Foru Arauaren 13. artikulua horren inguruan arautzen duenari jarraikiz:

- I. Ustiapen ekonomikoa egitea.
- II. Aktiboa edo eragiketa bolumena, Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunean zehaztu bezala, HAMAR (10) milioi eurotik gorakoa ez izatea.
- III. Langileen batez besteko kopurua 50etik beherakoa izatea.
- IV. Lehen adierazitako baldintzetako bat betetzen ez duen beste enpresa batek haien gaineko % 25 edo gehiagoko partaidetzarik ez edukitzea —ez zuzenean, ez zeharka—, salbu eta beste enpresa hori arrisku-kapitaleko funts edo sozietateak direnean eta foru-arau honetako IV. kapituluaren ezarritako araubide berezia aplikatzen bazaie.

Erakundea sozietate taldekoa denean, Merkataritza Kodearen 42. artikuluaekin bat, aipatutako langile kopuruek taldea osatzen duten erakunde guztiei egingo diete erreferentzia.

- b) Laguntza eskaera aurkezteko unean baliozkotasunez eratuta egotea eta merkatura zuzendutako ustiapen ekonomiko bat gauzatzea.
- c) Donostian izatea lantokia, eta bertan garatzea diruz lagundutako jarduerak.
- d) Tokiko proiektu bat izatea, eta diruz lagundutako jarduera edo inbertsioa Donostian kokatuta egotea. Nazioartekotze- eta sustapen-ekintzetarako dirulaguntzen kasuan, pertsona onuradunaren egoitza fiskala, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 48.2 artikuluko definizioarekin bat, Donostian izan beharko da.
- e) Proiektu berritzaileak edo I+G+Bkoak izatea, eta negozio eredu eskalagarria aurkeztea. Enpresa eta/edo entitateen proiektuak izango dira, jarraian definitzen den moduan:

- I) Enpresa berritzailea: aurkeztutako memoria teknikoaren bidez, produktu, zerbitzu edo prozesu berriak edo nabarmen hobetuak garatzen dituen edo etorkizunean garatuko dituen bere sektorean nagusi den teknikarekin alderatuta; enpresa berritzaileak teknologian oinarrituak edota berrikuntza teknologikoaren bidez garatuak dira, eta inpliziturik dute porrot teknologiko edo industrialaren arriskua.
- II) Oinarri teknologikoko enpresa: teknologia sortzeko gaitasuna duena; oinarri teknologikoko enpresen jarduna jakintza zientifiko eta teknologikoan oinarritzen da, eta haien jarduera, berriz, kualifikazio handiko zientzialarrietan eta langile teknologikoetan, bai eta negozio garapenean adituak diren langileen lanean ere; halako enpresek garatzen duten jarduera teknologia propioen ustiapen ekonomikoa izaten da, edo jakintza eragileek garatutakoa, eta enpresa jarduerak produktu, zerbitzu edo prozesu berriak garatzea ahalbidetzen du, ondoren merkatuan txertatzeko.

Honako hauek ezingo dira onuradun izan:

- a. Fundazioak eta elkarteak, irabazteko asmorik gabeak.
- b. Irabazi asmorik gabeko erakundeen, ondare sozietate eta/edo profesionalen elkargoen eta/edo Sektore Publikoko erakundeen (hau da, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB zuzentarauen transposizioa Espainiako ordenamendu juridikora egiten duen Publikoko Kontratuei buruzko azaroaren 8ko 9/2017 Legearen 3. artikuluan jasota daudenen) menpe dauden erakundeak, ezta aipatutako horietan % 25etik gorako partaidetza duten erakundeak ere.

Salbuespen gisa, onuradun izan ahalko dira, apartatu honetan deskribatutako kasuan egon arren, ondoko baldintzetako bat betetzen duten erakundeak:

- Haien erakunde nagusia edo % 25etik gorako partaidetza duena Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kide izatea.
  - Eskatera egiten duen erakundea bera ekainaren 23ko 109/2015 Dekretuak arautzen duen Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko kidea izatea.
- c. Estrategia laguntza hauek ez dira bateragarriak EKINN+ 2026 programarekin. Hori dela eta, EKINN+ 2026 programaren onuradunak ezingo dira izan Estrategia laguntzen onuradun.

## 5. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZEN ZENBATEKOA ETA DIRUZ LAGUNTZEKO KONTZEPTUAK

Deialdi honetan, gehieneko bi zenbateko egongo dira:

- **15.000 euro-ko** gehieneko zenbatekoa, EKINN+ 2024 eta 2025, Inkubagailua 2026 eta Ekinn+ Sendotzea 2026 programaren onuradun izan den erakunde

eskatailearentzat, eta/edo jarduera nagusia SEIC-Teknologikoekin edo biozientzien eremukoak dituen eta CNAE2025 eta CNAE2009 kodeetan sailkatuta dagoen erakundearentzat:

- Talde mailan (2 digitu): 62, 71, 72
  - Maila espezifikoan (4 digitu): 32.50, 46.46, 86.22, 26.60
- **10.000 euroko** gehieneko zenbatekoa, gainerako erakundeentzat

Entitate eskatzaile bakoitzeko laguntza bat eman ahal izango da.

Diruz lagun daitezkeen proiektuak **gauzatzeko epea 2026eko Urtarrilaren 1etik 2027ko Martxoaren 31ra bitartekoa izango da**. Diruz lagun daitezkeen gastuak justifikatzen dituzten fakturek ere aldi horretakoak izan beharko dute. Gastuak justifikatzen dituzten fakturen ordainketak 2026eko Urtarrilaren 1etik 2027ko Martxoaren 31ra bitartean egindakoak izango dira. Fakturek erabat ordainduta egon behar dute, onartuak izateko.

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak honako hauek izango dira, eta % 70ean diruz lagundu ahal izango dira. Diruz lagundu daitezkeen kontzeptu bakoitzerako gehieneko zenbatekoa honako hau da:

### 1. FINANTZAKETA AUKERA: gehieneko laguntza 10.000 euro

Diruz lagungarriak izango dira kanpoko aholkularitzarekin eta inbertsioarekin lotutako kontzeptuak, enpresari hazkundera eta merkatuan gero eta handiago bihurtzea ahalbidetzen duen finantzaketa lortzearekin zerikusia dutenak.

Enpresari merkatuan haztea eta eskalagarritasuna ahalbidetzen dizkion finantzaketa lortzearekin zerikusia duen kanpoko aholkularitzarako eta inbertsioetarako eskatu ahal izango da laguntza.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) Finantzaketa txandak: aholkularitza finantzarioa eta/edo legala.
- b) Europako laguntzak, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroarenak edo antzekoak.
- c) Fiskalitatearen bidez I+G finantzatzeko tresnak (64Bis eta Tax Lease).
- d) Bestelako *ad hoc* finantzaketak, egoera espezifikoetarakoak.

### 2. BERRIKUNTZA PRODUKTU EDO ZERBITZUAN: lehenengo produktua edo produktu berri bat garatzea: gehieneko laguntza 15.000 euro

Berrikuntzarako aholkularitza eta laguntzarako eskatu ahal izango da dirulaguntza, honako hauek bideratzeko: ikerketa eta garapen proiektuak; produktu berriak garatzeko tresneria eta materiala eskuratzeko inbertsioak; kanpoko adituen txostenak, ziurtagiriak eta auditoretzak.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) I+G aholkularitza eta laguntza teknologikoa.
- b) Produktua merkaturatzeko derrigorrezko ziurtagiriak: osasun produktuaren CE marka edo antzekoa.
- c) Proba pilotuak garatzeko eta saiakerak egiteko aktiboak eskuratzeko inbertsioak, I+G jardueraren ondorioetarako soilik.

### **3. I+G BABESTEA: gehieneko laguntza 15.000 euro**

Ezagutza teknikoen ikerkuntza eta/edo garapenaren kontratuzko ikerketaren inguruko aholkularitza eta laguntza eskatu ahal izango da, baita kanpoko iturriekiko lizentzia akordioen bidez merkaturako prezioetan eskuratutako patenteak erosteko eta jabetza industrial eta/edo intelektualaren eskubideak eskuratu, babestu eta saltzeko aholkularitzaren kostuetarako ere.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) I+G babesteko aholkularitza.
- b) I+G babesteko jarduerak burutzeko inbertsioak.

### **4. BERRIKUNTZARI LOTURIKO ESTRATEGIA ETA NEGOZIO-EREDUAK: gehieneko laguntza 10.000 euro**

Laguntza berrikuntzari lotuta edo zaintza teknologikoari edo adimen lehiakorrari bideratuta dauden estrategia eta negozio ereduak bultzatzeko eta aholkularitza lortzeko eskatu ahal izango da.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) Berrikuntza kudeatzeko aholkularitza, metodologia berrikuntzaren kudeaketan.
- b) Produktu, merkatu edo negozio-ereduan berrikuntzak egiteko planen inguruko aholkularitza.

### **5. MERKATUEN GARAPENA: gehieneko laguntza 10.000 euro**

Merkatuen garapena bultzatzeko eta aholkuak jasotzeko eskatu ahal izango da dirulaguntza.

Apartatu honetan justifikatzen diren kontzeptu diruz lagungarriek honako hauekin zerikusia izan beharko dute:

- a) Misio zuzenak eta alderantzizkoak, estatu mailakoak edo nazioartekoak.
- b) Estatu mailako zein nazioarteko azoketan parte hartzea.
- c) Merkataritza ekintza baterako sustapen materiala.
- d) Merkatu garapenerako planifikazio estrategikoa.
- e) Hitzarmen eta aliantza estrategikoak merkatuaren garapenerako: ordezkaritza komertzialeko edo banaketako erakundeekin kontratua.
- f) Egoitza berriak irekitzeko eta merkatu berrietan sartzeko bideragarritasunaren azterketak.
- g) Herrialde berrietan sartzeko eta harreman komertzial berriak sortzeko aukerak aztertzea.

Proiektuari zuzenean lotutako bidaiak gastuen kasuan, ondo justifikatu beharko da bidaiak proiektuaren helburuei lotuta egotea eta gauzatze epean egin izana. Horrelako gastuetan, proiektua gauzatzearekin zuzenean erlazionatua dauden langileei dagozkienak bakarrik onartuko dira, betiere izenekin identifikatuak agertzen badira.

## 6. PRESTAKUNTZA ESPEZIALIZATUA: gehieneko laguntza 6.000 euro

*Business management* delakoarekin, diseinuarekin eta teknologiarekin lotutako arloetako proiektu berritzaileari lotutako langileentzako prestakuntza espezializatuaren gastuak direla eta eskatu ahal izango da laguntza.

## 6. ARTIKULUA. BESTE LAGUNTZA BATZUEKIKO BATERAGARRITASUNA

Laguntza horiek bateragarriak izango dira administrazio batek edo erakunde publiko edo pribatu batek (estatuko, Europar Batasuneko edo nazioartekoak) helburu eta aldi berbererako emandako beste edozein laguntzarekin.

Hala ere, EKINN+ 2026 programaren onuradunak ezingo dira izan Estrategia laguntzen onuradun.

Laguntza horien azken hartzaile guztiek, bai jarduera ekonomikoa egiten duten pertsona fisikoek (autonomoek), bai pertsona juridikoek, nahitaez bete beharko dituzte Europako Batzordearen 2023ko abenduaren 13ko 2023/2831 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintzak eta mugak laguntza horiek emateko (erregelamendu hori Europar Batasunaren funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua *de minimis* laguntzei aplikatzeari dagokio).

Hori horrela, azken hartzaile bakoitzari eman ahal izango zaizkion *de minimis* laguntzen zenbateko osoa ezingo da izan 300.000 €-tik gorakoa hiru ekitaldi fiskaleko edozein alditan. Ondorio horietarako, araubide honen eraginpean daudenek erantzukizunpeko berariazko adierazpena aurkeztu beharko dute hiru ekitaldi fiskaletan jasotako laguntzei buruz, dagokion ekitaldi fiskalean eta aurreko bi ekitaldi fiskaletan dagokion muga kuantitatiboa betetzei dagokionez. Zenbaketa horretarako, laguntza emateko unea hartuko da kontuan.

Dirulaguntza emateko ebazpenean, dirulaguntza gordinaren zenbatekoaren baliokidea jakinaraziko zaio onuradunari, *de minimis* mugaren ondorioetarako..

Jasotako dirulaguntzaren zenbatekoak, Oinarri hauetan adierazitakoarekin bat, inoiz ez du diruz lagundutako jardueraren kostua gaindituko, ez banaka, ezta beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabideekin batera ere.

## 7. ARTIKULUA. ESKABIDEAK AURKEZTEA

Laguntza honen deialdia Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean agertuko da; gero, deialdiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da. Dirulaguntzaren eskaerak laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera aurkeztu ahal izango dira, **deialdia itxi arte, hau da, 2026eko Irailaren 10era arte**.

Eskaerak aurkezteko epea amaituta, gerakinik egonez gero edo diru zuzkidura handituz gero, Donostia Sustapenak ontzat ematen badu, eskaerak aurkezteko epea luzatu ahal izango da, Oinarri hauek aldatuz (horren berri hedabide egokietan emango da).

Eskaerak bide telematikoz aurkeztu behar izango dira, Donostia Sustapenaren webgunearen bidez ([www.fomentosansebastian.eus](http://www.fomentosansebastian.eus)).

Eranskinak osorik bete eta behar bezala sinatu beharko dira. Sinadura behar duen eransteko dokumentazioa digitalki sinatu beharko da.

Edozein informazio eskatzeko edo galdera egiteko, 943 482800 telefono zenbakia edo [fomentoss@donostia.eus](mailto:fomentoss@donostia.eus) helbide elektronikoa erabil daiteke, gaian honako hau jarrita: "Estrategia 2026 laguntzak"

Donostia Sustapenak eskaera aurkeztu aurretiko arreta zerbitzua eskaintzen du, sor daitezkeen zalantzak argitzeko. Zerbitzua posta elektronikoz eskatu beharko da, aipatutako helbide elektronikoa, eta banakako zein taldekako saioetan eman ahal izango da, Donostia Sustapenak erabakitako moduan eta proiektu edo laguntza motaren arabera.

## 8. ARTIKULUA. ESKAERAREKIN BATERA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA

Dagokion eskabide inprimakiari eskatzen den administrazioko dokumentazio osoa erantsiko zaio, dokumentazio teknikoa eta ekonomikoa barne.

Eskaera egiteko orduan, proiektuari aplikatu nahi dioten laguntzaren gehieneko zenbatekoa adierazi beharko dute. 20.000€-ko zenbatekoa ez da kontuan izango, zenbatekorik eskatzen ez bada edota 15.000€-ko gehieneko zenbatekoa eskatzen bada.

### **Administrazioko dokumentazioa:**

- a) **Eskaeraren eranskina.** Eranskin horretan eskatutako igoerak baino ez dira kontuan izango.
- b) **"Banku datuen" eranskina,** dirulaguntza eskatzen duen pertsonaren edo erakundearen datuak jasotzen dituen, dagokion banku erakundeak zigilatua, edo bankuko dokumentu baliokidea.
- c) Pertsona fisikoa bada, **eskatzailearen NAN agiriaren** kopia.
- d) Pertsona juridikoa bada, **eskatzailearen IFK agiriaren** kopia eta, hala badagokio, ahalordedunaren NAN agiria.

### **Dokumentazio teknikoa: Deskribapen txosten teknikoa eta ("Txosten teknikoa" eranskina):**

Memoria teknikoak garatuko den proiektu berritzailea deskribatuko du, bai eta egin beharreko gastuak eta enpresaren hazkundera izango duen inpaktua ere. Informazio teknikoa eta ekonomikoa izango du, eta alderdi teknikoak, zientifikoak eta berrikuntzakoak, ekonomiko-finantzarioak, negozio plana eta proiektuaren ustiapen komertziala erakutsi beharko ditu.

Proiektuaren diseinu orokorra jasoko du (faseen garapena, atzak, arduradunak, kronograma, emaitzaren adierazleak) eta argi eta garbi azalduko du proiektuaren egoera.

Honako apartatu hauek izango ditu txostenak:

1. Proiektuaren izenburua.
2. Eskatzailearen identifikazio datuak eta datu orokorrak.
3. Enpresaren negozio planaren bideragarritasun ekonomikoa eta errentagarritasuna.
4. Proiektuaren eta helburuen deskribapen laburra.
5. Proiektuaren aurrekariak eta justifikazioa.
6. Garatu beharreko proiektuaren deskribapena eta gastuen exekuzioaren justifikazioa. Proiektuaren fase nagusiak eta garapena jasoko ditu, proiektua deialdiaren helburuetara behar bezala egokitzen den jakiteko.
7. Proiektuaren aukera teknologikoaren, produktu berritzailearen eta merkatuaren bideragarritasunaren deskribapena, berrikuntza maila ezagutzeko.
8. Proiektuaren bideragarritasun teknikoa eta ekonomikoa eta espero diren emaitzak: helburuak, kronograma, adierazleak, garapen teknikoaren, komertzialaren, finantzarioaren eta giza kapitalaren deskribapena. Proiektuaren kudeaketa plana: proiektuaren kudeaketa bermatzeko mekanismoak, proiektuaren gobernantza azpikontratazioen kasuan, sortutako ezagutza, jabetza intelektualarena, etab.
9. Lantaldearen deskribapena (enpresakoarena + kanpokoaren), proiektuak helburuak lortzeko behar diren langileak, ekipoak, finantzaketa eta abar zenbateraino dituen erakusten duena.
10. Proiektuaren eragina (ekonomikoa eta erakundearen).
11. Jardueraren xehetasunak eta diruz laguntzen diren gastuak: deskribapena, justifikazioa, lortu nahi den eragina:
12. Diruz laguntzeko jardueraren aurrekontu xehea, zerbitzu/produktuaren hornitzaileak egindakoa.

Txostena hizkera errazean eta argi idatzia egongo da eta proiektua ulertzea eragozten duten teknizismoak saihestuko dira. Informazio zehatza jasoko du, 10. artikuluan xehetasunez azalduko diren irizpideak baloratzea ahalbidetzen duena. Txostenaren gehieneko luzera 8 orrialde izango da.

### **Dokumentazio ekonomikoa: Laguntzaren xede jardueraren txosten ekonomikoa:**

1. Laguntzaren xede diren gastuen finantza txostena, pdf formatuan eta Excel formatuan: **"Estrategia – Finantza memoriaren eranskina"**.

## **9. ARTIKULUA. ESKAERETAKO AKATSAK ZUZENTZEA**

Donostia Sustapenak agiri guztiak aztertu ondoren bete gabe daudela edo dokumenturen bat falta dela egiaztatzen badu, errekerimendua egingo dio eskatzaileari hamar egun balioduneko epean nahitaezko dokumentuak aurkez ditzan; halaber, jakinaraziko zaio horrela egiten ez badu, eskaera kanpoan utziko dela, bestelako izapiderik gabe, eta, ondorioz, horri buruzko ebazpena emango dela. Donostia Sustapenak proiektuaren txosten teknikoari buruzko azalpenak eskatu ahal izango ditu, komenigarria dela jotzen badu.

Zuzenketak onuradunak harremanetarako (jakinarazpenak egiteko) eman duen helbide elektronikoaren bidez bidaliko dira. Jakinarazpenak web aplikazioan –espedientean– ere egongo dira eskuragai.

Akatsak zuzentzeko eskatutako dokumentazioa aurkezteko, hasierako eskaera egiteko erabili zen bide bera erabiliko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztagiria ez dira onartuko.

Dirulaguntzak ematea edo ukatzea Donostia Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da, eta posta elektronikoz jakinaraziko da. Jakinarazpenak web aplikazioan (espedientean) ere egongo dira eskuragai.

## **10. ARTIKULUA. LAGUNTZA IZAPIDETZEA ETA EBAZTEA**

Dirulaguntzak azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22. artikuluan aurreikusitako lehiaketa prozeduraren bidez emango dira, honako printzipio hauek betez: publikotasuna, gardentasuna, objektibotasuna, berdintasuna eta diskriminaziorik eza, efikazia helburuak betetzean eta efizientzia baliabide publikoak esleitu eta erabiltzeko orduan.

Norgehiagoka bermatzearen, proiektuaren txosten tekniko eta ekonomikoa proposamenak ebaluatzeko balio duen dokumentutzat jotzen da.

Eskaerak kanpoko adituek ebaluatuko dituzte; aditu horiek, gainera, onartutako proiektuen garapenaren eta gastuen jarraipena egin ahal izango dute, eta oinarri arautzaile hauek aplikatzean sor daitezkeen gaiak ebatzi eta interpretazioak egin ahal izango dituzte.

Tokiko proiektuak izango dira eta ondoko ezaugarrietako bat izango dute:

- Balio bereizgarri bat izatea, gaur egungo merkatuari edo gizarteari dagokionez.
- Teknologia, ezagutza eta/edo berrikuntzaren erabilera intentsiboa.
- I+G arloko proiektuak.
- Produktu eta/edo zerbitzu berriak eta lagungarriak.
- Daudenak baino eraginkorragoak diren eta gure hiriko garapen sozioekonomikoan in-paktu handiagoa izango duten prozesuak edo negozio ereduak.
- Profil kualifikatuak eskatzen dituzten eta balio erantsi handiko profil profesional berriak bultzatzen dituzten proiektuak.

Proiektuak ebaluatzeko, honako irizpide hauek erabiliko dira:

<b>1. Bikaintasun zientifikoa - Teknikoa</b>	<b>34</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Proiektuaren garrantzia, proiektua deialdiaren helburuetara egokitzen dela.</li><li>• Berrikuntza maila: zientifikoa, teknologikoa, bai produktuan, bai zerbitzuan edo prozesuan.</li><li>• Balio diferentziala eta proiektuak merkatuarekiko edo gizartearekiko duen eragina</li></ul>	
<b>2. Kalitatea eta kudeaketa ezarpenean</b>	<b>33</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Proiektuaren kudeaketaren kalitatea: proiektua kudeatzeko plan egoki bat egotea, proiektuaren kudeaketa bermatzeko mekanismoak, proiektuaren gobernantza azpikontratazioen kasuan, sortutako ezagutza, jabetza intelektuala, etab.</li><li>• Proiektuaren bideragarritasuna eta eraginkortasuna: helburuak, adierazleak, garapen teknikoaren, komertzialaren, finantzarioaren eta giza kapitalaren garapenearen deskribapena. Proiektuak zer gradutan dituen helburuak lortzeko beharrezkoak diren langileak, ekipoak, finantzaketa eta abar.</li></ul>	
<b>3. Proiektuaren eragina</b>	<b>33</b>
<ul style="list-style-type: none"><li>• Proiektuaren bideragarritasuna eta iraunkortasuna: finantza-garapena, emaitzak lortzeko probabilitatea, planteatutako beharren koherentzia.</li><li>• Eragin estrategikoa eta ekonomikoa: helburu estrategikoei dagokienez, erakundearen, eskalagarritasun potentzialean, nazioartekotzean, enplegua sortzean</li><li>• Eragin soziala, jasangarritasuna eta tokiko berrikuntza, profil profesionalen garapenean duen eragina, hirian duen eragina.</li></ul>	
<b>PROIEKTUAREN PUNTUAZIOA, GUZTIRA</b>	<b>100</b>

Eskaera bat hautatu ahal izateko eskatzen den gutxieneko puntuazioa 20 puntu izango da **2. irizpidean. Implementazioaren kalitatea eta kudeaketa**; beraz, kanpoan geratuko dira eskatutako gutxieneko puntuazio hori baino puntuazio txikiagoa lortzen duten eskaerak.

Hautatuak izan diren eskabideak bakarrik igaroko dira laguntzaren balorazio ekonomikora.

Donostiako Sustapen Programan (EKINN+ 2024 eta EKINN+ 2025), Inkubagailua eta EKINN+ Sendotzea 2026 programetan (betiere enpresa behar bezala eratuta badago) onartu diren proiektuek 5 puntu gehiago izango dituzte balorazioan, betiere ezarritako gutxienera iritsi badira, Donostiako start-up berriei hazten laguntzen jarraitzeko.

Onartutako proiektuak puntuazio handienetik txikienera ordenatuko dira eta –aipatu irizpideak aplikatuz– balorazio handiena jaso dutenak esleituko dira, deialdian ezarritako muga eta kreditu eskuragarria kontuan hartuta. **Ebazteko orduan, onartutako proiektu bakoitzeko esleitu den laguntzaren gehieneko zenbatekoa adieraziko da.**

Bi eskaera edo gehiagoren artean berdinketa egonez gero, 2. ebaluazio-irizpidean (Implementazioaren kalitatea eta kudeaketa) puntuazio handiena dutenei emango zaie lehentasuna. Berdinketak jarraitzen badu, 1. ebaluazio-irizpidean (Bikaintasun zientifiko teknikoa) puntuazio handiena duena lehenetsiko da 3. ebaluazio-irizpidearen arabera (Proiektuaren eragina). Berdinketak jarraitzen badu, lehentasuna emango zaio eskaerak aurkezten diren hurrenkerari.

Behin-behineko ebazpen bat aurkeztuko da. Egon daitezkeen alegazioak egiteko 10 egun balioduneko epea igarota eta, hala badagokio, interesdunek aurkeztutako alegazioak aztertuta, behin betiko ebazpena aurkeztuko da.

Eskaerak hautatzeko orduan, erreserba zerrenda bat osatu ahal izango da, puntuazio ordenari jarraikiz, erakunde onuradunetako batek dirulaguntzari uko egiten badio edo aurrekontua igotzen bada, Donostia Sustapenak dirulaguntza zerrenda horretan dagoen eskatzaile bati eman ahal izateko, deialdi berririk egin behar izan gabe.

Eskatutako dirulaguntzari buruzko ebazpena emateko epea 5 hilabetekoa izango da, deialdia ixten den egunetik hasita, administrazio dokumentazioa zuzentzeko aldiak epe horren barruan kontuan izan gabe. Dirulaguntza emateko ebazpena ezarritako epean ematen ez bada, ez du esan nahi dirulaguntza eman denik.

Dirulaguntza ematea edo ukatzea Donostia Sustapenak emandako esanbidezko ebazpenaren bidez adieraziko da.

Ebazpenak posta elektronikoz jakinaraziko zaizkie eskatzaileei, eskabide orrian "Jakinarazpenetarako helbide elektronikoa" apartatuan adierazitako helbidean; web aplikazioan ere egongo dira eskuragai, espedientearen barruan.

Eskatzailea ebazpenarekin ados ez badago, alegazioak aurkeztu ahal izango ditu gehienez ere hilabeteko epean, ebazpena ematen den egunetik aurrera. Horretarako, Donostia Sustapenarekin harremanetan jarri beharko du, egin beharreko izapideei buruzko informazioa

jasotzeko. Donostia Sustapenak erabakitakoa bete beharko da, eta, hala beharrez gero, bi aldeak Donostiako Epaitegien eta Auzitegien jurisdikzioaren mende geratuko dira.

## 11. ARTIKULUA. ESTRATEGIA DIRULAGUNTZA JUSTIFIKATZEA ETA ORDAINTZEA

Dirulaguntza horiek justifikatzeko epea **2027ko martxoaren 31ra** arte izango da.

Justifikazioa osorik egin beharko da. Justifikazio bakarra baino ez da onartuko, laguntzaren xede diren gastu guztiekin.

Ordaintzen den dirulaguntzak inoiz ez du hura emateko erabakian onartutako gastua gaindituko. Ez dira kontuan izango kontzeptu bakoitzean esleitutako zenbatekoak gainditzen dituzten fakturak.

Gehienez ere, jardun ildo bakoitzeko onartutako zenbatekoa ordainduko da, ebazpenean adierazitakoa.

Estrategia laguntzak ordainketa bakarrean ordainduko dira, ondoko dokumentazioa aurkeztu eta gero:

1. **“Amaierako justifikazioa” eranskina.**
2. **“Amaierako txostena” eranskina**, programaren bidez abian jarri den proiektu edo jardueraren garapena deskribatzen duena eta enpresak benetan egin duen lanaren emaitzak jasotzen dituena. Hornitzaileei kontratatutako zerbitzuak eman eta ezarri direla egiaztatzeko behar besteko frogak jaso beharko ditu, baita enpresaren hazkundean izan duen eragin positiboa ere, alderdi guztietan: ekonomian, merkatuko posizionamenduan, bezero berrien kopuruan, produktu berritzailearen garapenean eta abarretan.
3. **“Finantza memoria” eranskina.** Excel formatuan.
4. Diruz laguntzen diren zerbitzu edo produktuen **fakturak**, 300 eurotik (zergak kanpo) gorako gastuei dagozkienak.
5. **Egindako ordainketen egiaztageria.**

Dokumentazioa bide telematikoz aurkeztu beharko da. Posta elektronikoz bidez bidalitako egiaztageriak ez dira onartuko. Era berean, eranskin guztiak osorik bete beharko dira.

Dokumentu guztiak aztertuta, benetan jaso diren zerbitzuak (neurri batean edo batere ez) onetsitako jarduketekin edo justifikatu diren gastuei dagozkien kontzeptuekin bat ez datozela egiaztatzen bada, aldeztu aurretik onartutako eta justifikatutako jarduketei dagokien portzientzako zatia baino ez da ordainduko.

Edonola ere, justifikazioa aurkezteko ezarritako epea igaro bada eta dagokion dokumentazioa aurkeztu ez bada, Donostia Sustapenak dokumentu horiek gehienez ere 15 egun naturaleko epean aurkezteko eskatu ahal izango dio onuradunari, jakinarazpena jasotzen duenetik. Epe berri hori igarota dagokion dokumentazioa aurkeztu ezean, laguntza ez dela onartu joko da;

ondorioz, onuradunak galdu egingo du dirulaguntza kobratzeko eskubidea edo, kasua bada, jada jaso duen zatia Donostia Sustapenari itzuli beharko dio.

## 12. ARTIKULUA. LAGUNTZEN JARRAIPENA ETA DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUKETAK GAUZATZEA

Diruz lagundutako jardueren eta onartutako proiektuen jarraipena proiektuak gauzatu bitartean edo bukatu eta gero egin ahalko da.

Donostia Sustapenak jarraipena egiteko beharrezkotzat jotzen duen informazio tekniko eta ekonomiko guztia eskatu ahal izango du, laguntza gauzatzeko eta justifikatzeko prozesuan eskatutako gutxieneko dokumentazioaz gain.

Laguntzen jarraipena egitean eta justifikatzean lortutako emaitzek esleitu den dirulaguntza murriztea ekar dezakete, baita dirulaguntzarekin bat ez etortzea ere, deialdi honetan eta hurrengoetan.

Diruz lagun daitezkeen jarduketak oinarri arautzaile hauetan adierazitako epean eta moduan gauzatu beharko dira, Donostia Sustapenak –justifikatutako arrazoiak direla medio– kontrakoa baimentzen ez badu. Kasu horretan, esleitutako dirulaguntzaren zenbatekoa ere aldatu ahal izango da.

Jarraipenaren ondorioz, erakunde onuradunari egozteko moduko arrazoiak direla eta, antzematen bada ez direla bete edo gaizki bete direla laguntzaren emakidari lotutako betebeharrak, datuak faltsutu direla, zehatzak ez diren datuak eman direla, datu batzuk aipatu ez direla edota jasotako diru kopuruetako batzuk edo guztiak laguntzaren helburuak lortzeko erabili ez direla, dagozkion lege ekintzak hasiko dira, hala badagokio, edozein laguntza edo dirulaguntza jasotzeko desgaitzea barne, dagokiona itzultzeko eta berandutze interesak ordaintzeko betebeharra galarazi gabe.

Diruz lagundutako proiektua eta jarduketak aldatzen badira, onuradunak aldaketa horien berri eman beharko du eta, proiektua gauzatzeko epea bukatu baino (gutxienez) bi hilabete lehenago, aldaketak onartzeko eskatu beharko du, Donostia Sustapenak ebaluaziorako eskatzen duen dokumentazio osoa aurkezteaz gain.

## 13. ARTIKULUA. DIRUZ LAGUN DAITEZKEEN GASTUAK

Oro har, zalantzarik gabe diruz laguntzen den jarduerari lotuta dauden eta Oinarri hauetan ezarritako epean egin diren gastuak onartuko dira diruz laguntzeko moduko gastu gisa. Diruz laguntzeko moduko gastuen eskuratze kostuak ez du inola ere gaindituko merkatuko balioa.

Hazkundera eta merkatuan eskalagarritasuna ahalbidetzen dituzten gastu eta inbertsioei lotutako kontzeptuak izan beharko dira, eta izan daitezkeen eragin hori aurkeztutako txosten teknikoaren bidez adierazteko aukera egon beharko da.

Egiaztatzeko orduan, ez dira aintzat hartuko 300 eurotik beherako (zergak kanpo) gastuen fakturak eta egiaztagirak.

Txartelez eta banku transferentziaz egindako ordainketen agiriak eta helbideratze ordainagiriak baino ez dira onartuko. Aipatu ordainagirik egindako eragiketaren informazioa jasoko dute (onuraduna, kontzeptua, zenbatekoa, data, etab.) eta ez dira onartuko banku mugimenduen zerrendak. Ez dira onartuko BIZUM bidez egindako ordainketak.

Ez dira finantzarriak izango honako hauei dagozkien gastuak:

- Programa honen aurreko deialdian zati batean edo osorik finantzatutako fakturak.
- Enpresan ohiko / beti bezalako jarduerak gauzatzeko helburuarekin egindako gastuak, hau da, berrikuntza edo hobekuntza nabarmenik ez dakarrenak edo, oraingo egoerarekin konparatuta, merkatu berririk irekitzen ez dutenak.
- Oinarrizko ikerlana helburu dutenak; aurretik erabakitako aplikazio edo erabilera helburu gisa ezarri gabe hasten den ikerlana joko da oinarrizkotzat; beraz, pizgarria lortzeko ezinbesteko baldintza berariazko helburu praktikoa bat eta enpresan izan dezakeen erabilera bilatzea izango da.
- Erakundea indarreko araudira egokitzeko egin behar diren lanak egitea.
- Enpresan lehendik dagoen aktibo finko bat (softwarea, aplikazioa, makineria eta abar) hobetzea.
- Web orrialdeak sortzea, web orrialdearen gaia proiektu berritzailea edo lehiakortasunaren hobekuntza ez bada.
- Errepikatzen diren lanak egiteko material berriak eskuratzea, ibilgetu materialetan inbertsioak egitea eta abar.
- Talde bereko enpresen artean eskaintzen diren zerbitzuak; hortaz, barne fakturazioa duten prozesuak ez dira onartuko.
- Ohiko kontabilitate, liburu edukitzailatza, auditoretza eta zerga aholkularitzari lotutako jarduerak, lehiakortasuna hobetzerik ekarriko ez duen proiektu baten garapenari lotutako aholkularitza ez direnean.
- Enpresak ondoren komertzializatzen dituen merkataritza produktuen eta/edo lehengaien erosketa, ezta laginak egiteko edo ekoizteko produktuen erosketa ere.
- Ohiko material suntsikorren eta bulego materialaren erosketa.
- Ohiko gastuak eta bereziki hornidura gastuak, hala nola argindarra, ura eta komunikazioa (telefonoa eta Internet konexioa).
- Interesak, errekaruak, zergak eta administrazio zehapenak.
- Balio erantsiaren gaineko zerga (BEZ) eta gainerako zeharkako zergak.
- Janari tiketak, dietak, kilometrajea, gasolina eta abar.
- Autonomoen kuota ordaintzeko gastuak.
- Oro har, Donostia Sustapenak onetsi ez dituen gastu guztiak.

Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31. artikulua aplikatu beharko zaie diruz lagun daitezkeen gastuei, espresuki hala aginduta.

## 14. ARTIKULUA. PERTSONA ONURADUNEN BETEBEHARRAK

Dirulaguntza horien onuradunek Dirulaguntzen Lege Orokorraren 14. artikuluan jasotako betebeharrak bete beharko dituzte. Ondorio horietarako, aipatu legea bete behar dela esanbidez adierazten da, besteak beste eta bakarrik izan gabe, honako betebeharrak aipatuz:

- a) Donostia Sustapena Estrategia laguntzaren kofinantzaile gisa aipatzea diruz lagundutako proiektuak sustatzeko eta zabalkundea egiteko jardueretan; horretarako, erakundearen logoa jarriko da, baita dagokion legenda ere, egingo diren komunikazio euskarrietan (web orrialdea, kartelak, mezu elektronikoak eta abar).
- b) Donostia Sustapenak esanbidezko baimenik eman ez badu behintzat, aurkeztutako proiektuaren eta zereginen baldintzak errespetatzea eta betetzea.
- c) Dirulaguntza diruz laguntzen diren jardueretara bideratzea.
- d) Jasotako dirulaguntza dela eta Donostia Sustapenak dei ditzakeen jardunaldietan parte hartzea (proiektuen aurkezpena, jarduerak, emaitzen jarraipena eta abar).
- e) Diruz laguntzeko moduko gastuak justifikatzeko eskatzen den dokumentazioa aurkeztea, ezarritako moduan eta denboran.
- f) Jasotako dirulaguntzak zertan erabili diren egiaztatzen duten dokumentuak gordetzea, horiek guztiak egiaztatu eta/edo kontrolatu baitaitezke; nolahi ere, aplikatu beharreko araudian ezarritako epean gordeko dira.
- g) Helburu eta aldi bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru sarrera edo baliabide batzuk jasoz gero, Donostia Sustapena jakinaren gainean jartzea, eta laguntzak emateko kontuan hartutako edozein inguruabar subjektibo zein objektibo aldatu baldin bada, horren berri ematea, aldaketa gertatu eta gehienez ere 15 egun naturaleko epean.
- h) Emandako laguntzei dagokienez, Donostia Sustapenak bere eginkizunak betetzeko eskatzen duen informazio guztia ematea.
- i) Oinarri hauetako 3. eta 4. artikuluetan adierazitako baldintzak betetzea.
- j) Proiektua osatzen duten jardueren gastu eta diru sarrera guztiak kontabilizatzea eta kontabilitate liburuak behar bezala eramatea, horretara behartuta egonez gero.
- k) Donostia Sustapenari laguntzea, hala badagokio, egin ditzakeen finantza kontroleko eta egiaztapeneko jarduketetan, eta bere esku jartzea eskatzen duen informazio eta dokumentazio guztia.
- l) Laguntzaren xede den jarduera gauzatzeko behar diren lizentzia eta baimen guztiak izatea.
- m) Egunean izatea zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak.
- n) Donostia Sustapenari baimena ematea bere enpresen direktorio digitaletan eta I+G+b arloko eragile diren erakundeetan honako hauek argitaratzeko: harremanetarako pertsonaren datuak, jarduera, izen komertziala, logoa, marka eta beste edozein bereizgarri, pertsona onuradunak trafiko ekonomikoan erabiltzen duena. Ondorio horretarako, pertsona onuradunak elementu horiek adierazitako helburuekin bakarrik erabiltzeko eta ustiatzeko lizentzia bat emango dio Donostia Sustapenari eta Sustapenak era baketsuan erabiltzea bermatuko du.
- o) EAEko hizkuntza ofizialen erabilera bermatzea (euskarari lehentasuna emanez) komunikazio euskarrietan (webgunea, sare sozialak, mailinga, megafonia eta abar), sustapen eta hedapen materialetan, antolatutako jardunaldi eta ekitaldietan eta abarretan. Onuradunek Donostiako Udaleko Euskara Zerbitzuaren laguntza eskatu ahal izango dute

testuak itzultzeko eta horiek zuzentzeko (hilean gehienez ere 1.000 karaktere itzultzeko eta 9.000 karaktere zuzentzeko), baldin eta zerbitzuaren baldintzak eta ezaugarriak betetzen badira (<https://www.donostiaeuskaraz.eus/euskaraz/dirulaguntzak/lang/eu>).

## 15. ARTIKULUA. DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA

Onuraduna den pertsona fisiko edo juridikoak jasotako dirulaguntza –gehi diruaren legezko interesa, zenbatekoak ordaintzen diren unetik sortutakoa– itzuli beharko du, honako kasu hauetako edozein gertatuz gero:

- Oinarri hauetan aurreikusitako betebeharrak modu larrian edo/eta behin eta berriz ez betetzea. Ez-betetze larritzat edo/eta behin eta berriz errepikatutzat hartuko da Oinarri hauetan ezarritako betebeharrak bat behin baino gehiagotan ez betetzea; aurkeztutako datu, ziurtagiri, txosten eta/edo agiritako baten faltsutasuna edo faltsutzea; eta/edo Oinarri hauen esparruan jasotako dirulaguntza osoa edo horren zati bat aurreikusitakoak ez diren helburuetara bideratzea.
- Dirulaguntzaren xedea Oinarri hauetan aurreikusitako moduan justifikatzeko betebeharra urratzea eta behar bezala ez justifikatzea.
- Onuradunaren jarduerari buruz egin daitezkeen egiaztapen eta ikuskapenei kontra egitea, aitzakiak eta eragozpenak jartzea edo uko egitea, baita kontabilitate, erregistro edo dokumentu betebeharrak ez betetzea ere, baldin eta horren ondorioz ezin bada egiaztatu jasotako ekarpenei emandako erabilera, finantzatutako jardueren errealitatea eta erregularatasuna, edo edozein administraziok edo erakundek helburu bererako emandako dirulaguntzak, laguntzak, diru sarrerak edo baliabideak eskuratzea, izan horiek publikoak edo pribatuak, estatukoak, Europar Batasunekoak edo nazioarteko erakundeetakoak.
  - Jarduerak gehiegizko finantzaketa jaso badu, gainfinantzatutako zenbatekoan.
  - Kontratua desagitea, arrazoi objektibotzat edo enplegatzailearekin zerikusirik ez duten arrazoitzat jotzen diren kausak direla eta.

Aurrekoa kontuan izanik, dirulaguntza hauen onuradun izateko betekizunak une guztietan bete eta mantendu beharko dira. Bestela, Donostia Sustapenak dirulaguntzak itzultzeko eskatu ahal izango du aurreko apartatuetan zehaztutako baldintzetan. Era berean, ez-betetze larrienen kasuetan, hala nola datuen faltsutasuna edo jasotako dirulaguntza –osorik edo zati batean– beste helburu baterako erabili izana, Donostia Sustapena gaitu egingo da emandako dirulaguntza ezeztatzea erabakitzeko eta, hala badagokio, jasotako zenbateko guztiak itzultzea errekeritzeko, jasotako zenbatekoaren halako bostaren baliokidea den zenbateko bat ordaintzea hertsiki eskatzeaz gain.

Dirulaguntza itzuli beharko da eta Donostia Sustapena SAK onuradunari jakinaraziko dio Oinarriotan ezarritako arrazoiren bat gertatzen dela, jarraian deskribatutako baldintzetan.

Itzulketa egutegiko laurogeita hamar eguneko epean egin beharko da, Donostia Sustapena SAK onuradunari artikulua honetan aurreikusitako itzulketa arrazoiren bat dagoela burofax bidez jakinarazten dionetik zenbatzen hasita.

Era berean, eta aurreko apartatuetan ezarritakoaz gain, Donostia Sustapena SAK beretzat gordetzen du Oinarri hauetan ezarritako betebeharretako bat utzikeriagatik bete ez duten edo beren jokabidearen ondorioz fede onaren oinarritzko arauak urratu dituzten pertsona fisiko edo juridikoei Sustapenak eskaintzen dituen beste dirulaguntza edo onura batzuk eskuratzeko aukera BI (2) URTEZ eragozteko eskubidea.

## 16. ARTIKULUA. DATU PERTSONALAK BABESTEA

Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera, jakinarazten da emandako datuak Donostiako Udalak tratatuko dituela, tratamenduaren arduradun moduan, eta Donostia Sustapena SAK informazioa kudeatuko du tratamenduaren eragile moduan.

Tratamenduaren helburua zure laguntzaren eskaera izapidetu eta kudeatzea da.

DBEOren 6.1.e) artikulua da tratamenduaren bidez kotasunaren oinarria: tratamendua beharrezkoa da interes publikoaren izenean edo tratamenduaren arduradunari esleitutako botere publikoen izenean burututako eginkizun bat betetzeko: 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriari buruzkoa; 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa; eta 38/2003 Legea, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorra.

Oinarri hauetan edo eskabide inprimakietan hala adierazten bada, datu pertsonalei buruz eskatzen den informazioa derrigorrez eman beharko da, eta datu okerrak emateak edo daturik ez emateak eskabidea kudeatzea eragotziko du.

Oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradunek emandako datu pertsonalak Estatuko edo nazioz gaindiko erakundeei laga ahal izango zaizkie, baldin eta laguntza horiek batera finantzatzen badituzte eta/edo Donostia Sustapenarekin batera kudeatzen laguntzen badute, hori erabat beharrezkoa denean, eta emakida kudeatzeko soilik.

Era berean, jakinarazten da laguntzak emateak berekin ekarriko duela pertsona onuradunaren identifikazio datuak jakinaraztea edo lagatzea; izan ere, datu horiek, baita emandako laguntzaren zenbatekoa ere, Donostia Sustapenaren webgunean eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Ez da aurreikusten datuen komunikazio gehiagorik, ezta datuen nazioarteko transferentziarik ere, legeak hala agintzen ez badu.

Tratamendu honen xede diren datu pertsonalak bildu diren helburua betetzeko eta helburuaren eta tratamenduaren ondorioz sor daitezkeen erantzukizunak zehazteko behar den denboraz gordeko dira. Artxiboari eta dokumentazioari buruzko araudian xedatutakoa aplikatuko da.

Eragindako pertsonak datuak eskuratzeko, zuzentzeko eta ezabatzeko eskubideak baliatu ahal izango dituzte hala dagokionean, baita datuak babesteko indarrean dagoen araudian ezarritako beste eskubide batzuk ere, Donostiako Udaleko Udalinfo zerbitzuaren bitartez: Ijentea kalea 1, 20003 Donostia.

Interesdunak bere eskubideak baliatzeko garaian behar bezalako arreta jaso ez badu, erreklamazio bat aurkeztu ahal izango du Datuak Babesteko Euskal Bulegoan. Helbidea: Tomas Zumarraga Dohatsuaren kalea 71, 3. solairua, 01008 Vitoria-Gasteiz. Hala ere, alde zuzenetik, datuen babeserako Donostiako ordezkariarekin harremanetan jartzeko aukera izango du: [dbo@donostia.eus](mailto:dbo@donostia.eus).

## 17. ARTIKULUA. AZKEN XEDAPENA

### Indarrean jartzea eta onartzea.

Oinarri hauek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarriko dira, eta bertan argitaratu eta hurrengo egunean jarriko dira indarrean.

Interesdunek eskaera aurkezten badute, Oinarriak osorik onartzen dituztela esan nahi du.

### Erantzukizunetik salbuestea.

Onuraduna izango da laguntzaren xede den jarduera egin aurreko edo ondorengo jarduketan ondorioz sortzen diren kalte pertsonal eta/edo materialen erantzule bakarra, eta Donostia Sustapenak ez du inolako erantzukizunik izango kontzeptu horientatik.

## 18. ARTIKULUA. ARAUBIDE JURIDIKOA

Ematen diren dirulaguntzek Oinarri hauetan jasotako arauak beteko dituzte eta, modu osagarrian, Dirulaguntzen Lege Orokorrean eta hura garatzeko erregelamenduan jasotakoaren arabera (erregelamendu hori uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen), nahiz eta Dirulaguntzen Lege Orokorrean bildutako kudeaketa irizpideei eta lege horretako 20. artikulua bildutako informazio printzipioei dagokienez bakarrik izan –hori guztia lege horren 3.2 artikulua bigarren paragrafoa betez, hark ezartzen baitu aplikazio hori–.

Bestela, Dirulaguntzen Lege Orokorra eta hura garatzeko erregelamendua oinarriotan lege testu horien berriazko aipamena egiten denean bakarrik aplikatu beharko dira.

Donostian, sinaduran agertzen den egunean.

### **Ane Oyarbide Ochoa**

Ekonomiako eta Tokiko Enpleguko zinegotzi ordezkaria